

**ORDENANTZA FISKALA, UDALAREN ERABAKIETAN, ORDENANTZETAN ETA BESTELAKO ARAUETAN
AURREIKUSITAKO IKUSKAPENAK ZEIN AZTERTZEKO ETA KONTROLATZEKO BESTELAKO ESKU-
HARTZEAK DIRELA MEDIO ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA
ORDENANTZAK ETA BESTE ARAU BATZUK**

11. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehen tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Zerga-egitatea Udaleko langileen jardunak zedarrituko du, xede hauek erdieste aldera:

a) Egiatzatzea orpoz orpo betetzen dela Osasunari buruzko Ordenantzetan nahiz jarduera sailkatuei dagozkien arauetan eta Udalaren gainerako ordenantza, erabaki eta aplikatu beharreko bestelako arauetan ezarritakoa, uste bada arau-hausterik izan dela edo arauak bete ez direla.

b) Eraikinen azterketak segurtasun-baldintzak direla medio, eta ikuskapenak aurri-espeditanteetan.

c) Administrazioaren esku-hartzea erabilera kolektiboko igerilekuen funtzionamendua kontrolatzeko.

3. artikulua.- Ordenantza honetan, hauek ez dira zerga-egitate:

a) Udal-zerbitzuek ofizioz egindako ikuskapenak, dela arauak eskaturik dela zerbitzu jakin batek programaturiko jardunaren parte direlako.

b) Salaketa baten ondorioz egindako ikuskapenak, salbu 5. artikulua c) apartatuan ezarritako kasuetan.

Tasaren sortzapena

4. artikulua.- Tasa kasuan kasuko espeditentea edo jarduera ikuskatzeko edo bertan esku hartzeko zer udal-langileri eskatu eta horrek egindako ikuskapen edo esku-hartzeek sortuko dute, edo igerileku baten kanpaina bakoitzari begirako funtzionamenduari buruz aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenaren edukaren egiaztapenak.

Tasa ezartzeko orduan, ikuskapen edo esku-hartze gisara joko da udal-langileek ikuskapena edo esku-hartzea non egin behar duten eta haraino joan izana, nahiz, gero, ikuskapena edo esku-hartzea egin behar duten tokira sartzen utzi ez.

Subjektu pasiboak

5. artikulua.- Honako hauek dute ordaintzeko betebeharra:

a) Ikuskapena edo esku-hartzea zein jarduerak eragin eta horren titularrak diren pertsona natural edo juridikoak.

b) Ikuskapenaren xede diren eraikin, establezimendu, etxe, lokal edo beste zenbaiten jabeak, baldin eta arau-haustean zerikusirik badute.

c) Salatzailea bera, salaketa justifikatu gabe eta ausarkeriaz aurkeztu badu, edo nabarmen funtsik gabe, betiere txosten tekniko baten arabera.

d) Higiezinaren jabea, aurri-espeditenteei dagozkien ikuskapenetan.

Tarifak

6. artikulua.- Tarifak eta horien karga-oinarriak Ordenantza honen eranskinean daude jasota.

Tasaren kudeaketa

7. artikulua.- 1) Ikuskariak bisitaldia egin izanaren berri emanen diote behar den departamentuari, likidazioa egiteko beharrezkoak diren datuekin batera, eta salaketa, kasuan-kasuan, ausartegizat edo arrazoitu gabetzat jotzen den adierazita, eta departamentu horrek kasuari dagokion likidazioa egingen du, horri, egoki joz gero, zehapena gehituta, eta behar den organoari proposatuko dio onesteko.

Behin onetsita, betebeharra duen pertsonari jakinaraziko zaio, eta horrek kuota jakinarazi eta ondorengo hilabetearen barnean ordaindu beharko du. Ordaintzen ez badu, premiamendu bidez kobratzeari ekinen zaio, bestelako oharrik egin gabe.

2) Igerileku baten kanpaina bakoitzari begirako funtzionamenduari buruzko erantzukizunpeko adierazpenaren kasuan, subjektu pasiboak aurkeztuko du, funtzionamenduari buruzko erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, tasa ordaindu izanaren ordainagiria.

Arau-haustek eta zehapenak

8. artikulua.- Arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalean ezarritakoari eginen zaio men.

TARIFA-ERANSKINA

Ikuskapenek sortzen dituzten tasak honako hauek dira:

I. EPIGRAFEA.- EGIAZTATZEA ORPOZ ORPO BETETZEN DELA OSASUNARI BURUZKO ORDENANTZETAN NAHIZ JARDUERA SAILKATUEI DAGOKIEN ARAUETAN ETA UDALAREN GAINERAKO ORDENANTZA, ERABAKI ETA APLIKATU BEHARREKO BESTELAKO ARAUETAN EZARRITAKOA, USTE BADA ARAUAK BETE EZ DIRELA EDO ARAU-HAUSTERIK IZAN DELA:	
- Ikuskapen-bisita bakoitzagatik	103,15 euro

II. EPIGRAFEA.- ERAIKINEN AZTERKETAK SEGURTASUN-BALDINTZAK DIRELA MEDIO, ETA IKUSKAPENAK AURRI-ESPEDIENTEETAN:	
- Ikuskapen bakoitzagatik, betiere, gutxienez, arkitekto edo aparejadore baten 1,5 lanordu kontatuta	79,80 euro
- Denbora gehiago behar izanez gero, ordu bakoitzeko	35,05 euro

III. EPIGRAFEA.- ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZEAK IGERILEKUEN FUNTZIONAMENDUA KONTROLATZEKO	
- Funtzionamenduari buruzko erantzukizunpeko adierazpen baten kontrol bakoitzagatik:	168,05 euro
- Subjektu pasiboari egotz dakioken ikuskapen-bisita osagarri bakoitzagatik	103,15 euro